

**BISCAY MARINE ENERGY PLATFORM, S.A. REN**  
**KONTRATAZIO BATZORDEAREN AKTA**

Bilbon, 2019ko apirilaren 9an

Idazkariak aurretiaz egindako deialdiari jarraiki, 2019ko apirilaren 2ko datarekin, BISCAY MARINE ENERGY PLATFORM, S.A. ren (BIMEP) Kontratazio Batzordea bildu da, eta bertan honako kide hauek izan dira:

**BATZORDEKIDEAK**

Javier Marques Gonzalez jauna, EEEko Zuzendari Teknikoa.

Álvaro Colón Barriocanal jauna, EEEko Idazkari Nagusia

Carlos Aguirre Arana jauna, EEEko G.B. eta Z.O. ko zuzendaria, Enrique Monasterio Beñaran jaunaren ordez, EEEko Garapen eta Berrikuntzako zuzendaria dena, bertaratu ezina adierazi duena.

**IDAZKARIA EZ BATZORDEKIDEA**

Iker Alaña Zorrilla jauna, EEEko Kontratazio Ataleko arduraduna.

Rosa Madina andreak, EEEko Ekonomia-Finantzako zuzendariak, bertaratze ezina adierazi du.

Monasterio jaunaren bertaratze ezina dela eta, Marques Jaunak Presidente gisa jardungo du.

Gai-zerrenda jorratzeko, honako eduki hauen arabera:

1. *Kontratazio prozeduraren hasieraren memoria justifikagarria eta horri lotutako agiriak.*
  - *BIMEP/19/002. BiMEPeko itsas lanetarako itsasontzia alokatzea eta itsasontzi-patroi eta tripulazio zerbitzuak kontratatzea.*
2. *Kontratu txikien esleipenen zerrenda berrikustea.*
3. *Beste gai batzuk.*
4. *Bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.*

1. **Kontratazio prozeduraren hasieraren memoria justifikagarria eta horri lotutako agiriak.**

Batzordekideek, kontratuaren arduradunak aurkeztutako memoria justifikagarria eta honi dagokion Klausula Administratibo Berezien Agiriak (KABA) eta Zehaztapen Tekniko Partikularrenak aztertu dituzte, honako kontratazio espediente hauei lotuta:

- *BIMEP/19/002. BiMEPeko itsas lanetarako itsasontzia alokatzea eta itsasontzi-patroi eta tripulazio zerbitzuak kontratatzea.*

Batzordekideek egiaztatzen dute bi dokumentu horiek, kontratazio espedienterako beharrezkoak direnak, SPKLen aurreikusten diren baldintzak betez egin direla, eta kontratazio organoari bidaliko zaizkio, SPKLen 117. artikulua

aplikazioari jarraituz, egokitzat jotzen baldin badu, ebazpen arrazoitua eman dezan, kontratazio espedienteak onartuz eta lizitazio prozeduraren hasierari ekinez.

**2. Kontratu txikien esleipenen zerrenda berrikustea.**

Batzordeko kideei BIMEPek esleitutako kontratu txikien zerrendaren berri eman zaie; hain zuzen ere, Kontratazio Batzordeak burutu zuen azken bileratik hona.

**3. Beste gai batzuk.**

Ez da beste gairik izan.

**4. Bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.**

Bileraren akta idazteari ekin zaio eta irakurri ondoren, aho batez izan da onartua.

Bilera amaitu eta gero, akta hau sinatzeko eman zaie, eta bertan BISCAY MARINE ENERGY PLATFORM, S.A.ren Kontratazio Batzordeko presidentea eta idazkariak izenpetu dute.



Javier Marqués González jn.  
Kontratazio Batzordeko presidentea



Iker Alaña Zorrilla jn.  
Kontratazio Batzordeko idazkaria